

## LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

### GENERO IKUSPUNTUTIK, LEHEN HEZKUNTZAKO TESTU LIBURU MATEMATIKOEI BURUZKO AZTERKETA

**Egilea: Erica de las Heras Aparicio**

**Zuzendaria: Ainhoa Berciano Alcaraz**

**Leioan, 2016ko maiatzaren 27an**



2016, Erica de las Heras

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA .....</b>	<b>4</b>
<b>1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA.....</b>	<b>5</b>
<b>2. METODOLOGIA.....</b>	<b>11</b>
2.1. Ikerketa galderak.....	11
2.2. Ikerketaren lagina.....	11
2.3. Ebaluaketa tresna.....	12
<b>3. EMAITZAK.....</b>	<b>13</b>
3.1. Gizonen eta emakumeen presentzia irudietan .....	14
3.2. Gizonek eta emakumeek burutzen dituzten lan motak.....	17
3.3. Pertsonaien janzkeran eta itxuran dauden estereotipoak.....	21
3.4. Anaya-Haritzta eta Pixel-Giltza editorialen arteko konparaketa.....	23
<b>4. ONDORIOAK .....</b>	<b>24</b>
<b>5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....</b>	<b>25</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>27</b>

## GENERO IKUSPUNTUTIK, LEHEN HEZKUNTZAKO TESTU LIBURU MATEMATIKOEI BURUZKO AZTERKETA

Erica de las Heras Aparicio

UPV/EHU

Aurkezten den lan honen helburua Lehen Hezkuntzako matematika testu-liburuen analisia da, generoaren ikuspegitik eginda. Aztertutako material didaktikoaren irudietan egon daitezkeen bi generoen arteko desberdintasunak aztertzen ditu; horretarako bi editorial ezberdinetako testu-liburuak erabiliz, bakoitza ziklo batekoa izanda. Honen helburua desberdintasun horrek genero bakoitzeko ikasleengan izan dezakeen eragina ezagutzea da, gaur egun hezkuntza bateraturako bidean aurkitzen garela aintzat harturik.

*Hezkuntza bateratua, generoa, lehen hezkuntza, material didaktikoa, matematika*

El presente trabajo tiene como objetivo el estudio de los libros de texto de matemáticas de educación primaria desde una perspectiva de género. Analiza la posible existencia de diferencias de género que aparecen en las imágenes del material didáctico analizado; utilizando para ello libros de texto de dos editoriales diferentes, siendo cada uno de ellos de un ciclo. Con ello se pretende conocer la posible influencia que cierta diferencia podría generar en los alumnos de los dos géneros, teniendo en cuenta el camino hacia la coeducación que hoy en día se intenta seguir.

*Coeducación, género, educación primaria, material didáctico, matemática*

The aim of this work is to analyse primary education mathematics textbooks, taking into account a gender perspective. It analyses the gender differences that might be in the pictures of the instructional material which has been analysed; using for this different publishing house and course textbooks. Through this analyse we want to know the possible influence that could generate this difference in students of both genders, taking into account the way to coeducation that today we want to follow.

*Coeducation, gender, primary education, instructional material, mathematics*

## Sarrera

Jarraian aurkezten den lan honen bidez genero ikuspegia oinarri hartuta Lehen Hezkuntzako matematika liburuen azterketa bat egin nahi izan da. Honen helburua argitaletxe ezberdinetako testu-liburuetan agertu daitekeen genero desberdintasunaz ohartzea da, honek duen garrantzia eta eraginari ardura emanez, etorkizunean aldaketak eta hezkuntza bateratua sustatzen lagundu dezan.

Lan hau aurrera eramateko ikerketa bat egitea erabaki da; alde batetik, desberdintasun posible hau hautemateko eta ematen den edo ez baieztatu ahal izateko ikerketa sakon bat burutzea beharrezkoa delako. Eta beste alde batetik, lortu nahi den helburua gure gizartean dagoen errealitatea ezagutzera ematea besterik ez delako, eta ez beste kasu batzuetan egin den bezala, aldaketa edo irtenbide bat proposatzea.

Ikerketa honen bidez bi argitaletxe ezberdinetako matematika testu-liburuak aztertu egingo dira analisi ikoniko bat aurrera eramanez; hau da, liburuetan agertzen diren irudiak aztertuko dira.

Testu-liburu hauen irudietatik aztertu egingo dena alde batetik, kopurua izango da. Irudi totalaren kopurua zein den, eta horrekin genero femenino eta genero maskulinoko irudien presentziaren ehunekoa kalkulatu da. Beste alde batetik, bi generoetako pertsonaia hauek marrazkietan burutzen dituzten ekintzak aztertuko dira; lan eremuko ekintzak sakonago ikertuz, estereotipoak agerian usteko asmoz. Horrez gain, estereotipoekin jarraituz, pertsonaia ezberdinek dituzten janzkerak eta itxura fisikoak behatuko dira, hauekin transmititzen diren ideiak ateratzeko helburuarekin eta errealitatean dugun ideia nagusiarekin bat egiten duten konprobatzeko asmoarekin.

Azkenik, bi editorialetatik lortutako emaitzak alderatuko dira. Honen bidez lortu nahi dena editorial ezberdinetan genero desberdintasun berberak ematen diren edo ez ondorioztatzea da.

Azterketa hau autore ezberdinen ideiak oinarri hartuta burutuko da, hauek baieztatzeke edo ezeztatzeke. Horretarako, lortutako emaitzetatik ondorio batzuk aterako dira. Kontuan hartu beharra dago hauek ez dutela inolako balio zientifikorik izango, ikerketa honetatik ateratakoak baino ez direlako izango eta beste kasu eta ikerketa batzuetan ezberdinak suerta daitezkelako.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera**

Gaur egun hezkuntza sistema guztiontzat irekita eta eskuragarri dagoen erakundea da, non sexu eta maila ekonomiko ezberdinetako gizabanakoak sartu daitezke bertan. Hezkuntzak bete beharreko helburuetako bat ikasle guztiak orokorrak deritzen gaitasunak garatzea da. Gaitasun horien artean, Delors Txostenak 1996an lau zutabeak izendatu zituenak aurki daitezke: Ezagutzen ikastea, Egiten ikastea, Elkarrekin bizitzen ikastea eta Izaten ikastea. Lan honetan hirugarren horretan zentratuko gara, Elkarrekin bizitzen ikastea; hau da, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarriketara eta negoziatziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzen ikastea (175/2007 Dekretua eta Delors Txostena, 1996). Oinarrizko gaitasun hau garatzeak beste hainbat gaitasunen garapena bultzatzen du. Talde-jarduerak planifikatzen eta egiten ikastea, bizikidetzara-arauek eta demokratikoki ezartzen diren gainerako arauak ezagutzea eta betetzea, eta arazoak ekiditeko eta haiek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea dira gaitasun honen bidez eskuratzen diren trebetasunik garrantzitsuenak. Baina, ez dira eskuratzen diren bakarrak; izan ere, elkarrekin bizitzen ikasteak, ikasleek euren betebeharrak eta eskubideak arduraz onartzea dakar, bai eta gainerako pertsonak errespetatzea, gizarteko arauak eta ohiturak betetzea pertsonekin harremanak izaterakoan eta gizarte-jardueretan parte hartzerakoan, sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonak nahiz emakumeak diskriminatzea eragin dezaketen estereotipoak baztertzea (175/2007 Dekretua). Horrek berdintasuneko hezkuntza bat sortzera bultzatzen gaitu, non neska eta mutil guztiek aukera berdinetara sarbidea duten eta ez dituzten tratu diferentziak jasotzen. Horretarako koedukazioa edo hezkuntza bateratua izeneko aurrera eraman behar da.

### **HEZKUNTZA BATERATURAKO BIDEA**

Hezkuntza bateratuak desberdinak diren bi talde edo gehiagoren aldi bereko hezkuntzari egiten dio erreferentzia; baina, orokorrean neskak eta mutilak elkarrekin eta aldi berean hezi egiten dituen hezkuntza sistemaz hitz egiteko erabiltzen da (Subirats, 1994).

Nahiz eta, hezkuntza bateratuak bai neskengan bai mutilengan eragina duen hezkuntza sistemari erreferentzia egin, termino honek gehienbat emakumea hezteko moduarekin

erlazio zuzena dauka; beti ere bi generoen arteko berdintasuna bilatzen den bitartean (Subirats, 1994).

1970ko hezkuntza lege orokorra izan zen eskola mistoak onartu zituen lehenengoko legeak; hau da, neskak eta mutilak aldi berean heztearen aldeko legea izan zen hori. Hala ere, 1984/85 ikasturterarte ez zen lortu derrigorrezkoa izatea. Hezkuntza legedian egindako aldaketa horiek eragina izan zuten ingurune lagunkoi, malguagoa eta gehienbat genero rolangatik nabarmendua ez dagoena lortzen.

Luzea eta zailtasunez betetako prozesua izan zen eskola mistoaren hasiera, gehienbat eskola erlijiosoen ezezkoa dela eta. 70.eko legeak ikasle guztiak (neskak eta mutilak) curriculum berdina, irakasle talde berdina, eskolako gune eta joko berberak... izatea bermatzeaz gain, bi sexuentzako derrigorrezko hezkuntza aldiak zehaztu egin zituen; bai neskak zein mutilak 14 urte izan arte eskolarizatuak egotera derrigortuz.

Modu horretan, eskola mistoak hezkuntza eredu demokratiko bati eman zion hasiera, berdintasun formala gizartean txertatuz; baina, hori izan zen lortutako berdintasun mota bakarra, formala. Izan ere, ezin izan zuen bere helburu nagusia lortu: nesken eta mutilentzako aukera berdintasuna egotea. Hori aurrera eramateko hezkuntza aldaketa handia eta hezkuntza legediaren erreforma globala beharrezkoa suertatzen baitzen (González eta Lomas, 2006).

Aldaketa horiek 80ko hamarkadan etorri ziren, aldaketa politiko eta ekonomiko berrien laguntzarekin. Hala ere, beti bezala, pertsonen ekintzak dira aldaketak posibleak egiten dituztenak; eta Espainiaren kasuan, Emakumearen Institutuak Hezkuntza eta Zientzien Ministerioarekin batera izan ziren horien eragileak. Emakumearen Institutua izan baitzen eskola mistoari alternatibak, eta hezkuntza bateratuak behar zituen politika eta aldaketak bilatu zituena; modu horretan, aukera berdintasuna 1990ko LOGSE-aren (Ley de Ordenación General del Sistema Educativo) erreforman sartuz (González eta Lomas, 2006).

Hori horrela islatuta gelditu zen LOGSE-ren (1990) 2.3.c artikuluan: “sexuen arteko eskubide berdintasuna mantenduko da eskolan eta edozein bereizketa errefusatu egingo da”.

Gaur egun legea haratago doa gai horretan. 2013an onartutako LOMCE-k (Ley Organica para la Mejora de la Calidad Educativa) honela dio bere lehenengo artikuluan (b eta 1 paragrafoetan hurrenez hurren): “La equidad, que garantiza la igualdad de oportunidades para el pleno desarrollo de la personalidad a través de la educación, la

inclusión educativa, la igualdad de derechos y oportunidades que ayuden a superar cualquier discriminación y la accesibilidad universal a la educación, y que actúe como elemento compensador de las desigualdades personales, culturales, económicas y sociales, con especial atención a las que se deriven de cualquier tipo de discapacidad”.

Eskolan, gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzen duten balioen garapena emango da.

Hala ere, ez da horrela; eta azkotan, hezkuntza bateratua gaur egungo eskola mistoarekin nahasi egin daiteke. Noski hezkuntza bateratu bat lortzeko eman beharreko lehendabiziko pausoa eskola mistoak izatea dela; baina, eskola mota horrek ez du beti hezkuntza modu hori ziurtatzen, ez doaz beti eskutik (Subirats, 2009).

Hori dela eta, esan daiteke eskola mistoa mutilen eta neskontzako hezkuntza bateratu bat lortzeko zubi bat dela; baina, azken honek bi generoak batera hezteaz gain, eskola mistoak orain arte lortu ezin izan duen eredu kulturalaren aldaketa beharrezkoa du. Izan ere, gaurko eskolek eta oro har hezkuntza sistema osoa androzentrismoz beteta daude, errealitatean nagusitzen den pentsamendua hori baita, eta dakigun moduan, eskolak gizarteko errealitatearen isla bat da beti (Subirats, 2009).

Hori da hain zuzen ere, androzentrismoa, gizarteak duen aurreiritzi larrietako bat; pentsamendu zientifikoan, erlijiosoan, filosofikoan eta politikoan eragin zuzena daukana. Androzentrismoa sexu maskulinoko gizabanakoa guztiaren zentrotzat, munduaren ikusle bakartzat, legeak egin ditzakeen, justizia ezarri eta mundua gobernatu dezakeen gizabanako bakartzat hartzean datza (Moreno, 2000).

Zaharra eta oinarrizkoa den pentsamendu androzentriko horrek berritzailea den beste batekin existitzen da, pentsamendu zientifikoa alegia, eta honek eragin oso indartsua eta zuzena jasotzen du errealitatetik (Moreno, 2000).

Hori dela eta, ikusi egin izan da zientziak ikuspegi partzial androzentrikoak inplikatzeko dituen genero joerak dituela; hau da, objektibotasun maskulinoa ezarri egin da emakumezkoen ikuspuntua aintzat hartu barik (Sánchez, 2002).

Arrazoi hori dela medio, orain arte alor zientifikoa gizonezkoen eskuetan garatu izan da, euren esperientzien arabera diseinatuz (Harding, 1996 eta David, 1994 in Sánchez, 2002). Zientziak duen egoera hori izanda, oso zaila da androzentrismoak eskoletara duen sarbidea geldiaraztea (Sánchez, 2002).

Hau ikasleei curriculum ezkutuaren bidez heldu egiten zaie; bai ikusizko curriculum ezkutuaren bidez, zein jarrerazko curriculum ezkutuaren bidez (Acaso eta Nuere, 2005).

## **EZKUTUKO CURRICULUMA**

Ezkutuko curriculuma eskolan modu inplizituan transmititzen diren edukiei deritza (Jackson, 1968 in Acaso eta Nuere, 2005). Ezkutuko curriculumaren helburu nagusia modu esplizituan; hau da, ahozko edota idatzizko diskurtsoaren bidez transmititzeko egokiak ez diren eduki zehatz batzuk inplizituki transmititzea da. Eduki horiek ikastetxearen jarrera botere banaketari dagokionez, klase sozialei buruz duen ikuspegia, arraza, genero edota erlijio zehatz baten defentsa etab. izan daitezke.

Espanian, hezkuntza formalaren maila guztietan curriculum mota hau sistema patriarkal eta kapitalistaren oinarriak ikasleengan finkatzeko erabiltzen da; modu horretan, gaur egungo banaketa asimetrikoa denboran zehar iraunaraztea ziurtatzen da (Acaso eta Nuere, 2005):

- Botere totalitarista oinarritzat duen sistema.
- Genero maskulinoaren nagusitasuna.
- Klase sozial dirudun eta boteretsuaren nagusitasuna.
- Arraza zuriaren nagusitasuna.
- Ipar Amerikako kulturaren nagusitasuna gainontzeko kulturekin alderatuz.
- Erlijio katolikoaren nagusitasuna.

Ezagutza hauek, esan bezala, modu inplizituan transmititzen dira. Horretarako, bi modu daude: alde batetik, jarreraren bidez; hots, irakasleak ikasleei hitz egiteko duen era, zeinei hurbiltzen den, hitz egiterako orduan egiten dituen keinuak etab. Eta beste alde batetik, jasotzen diren irudien bidez, gehienbat testu liburuek dituzten testu eta marrazkiengandik (Acaso eta Nuere, 2005).

## **JARRERAZKO CURRICULUM EZKUTUA**

Jarrerazko curriculum ezkutua ikasleek irakasleengandik jaso egiten dituzten estimuluei deritze; hauek zeintzuk diren eta nola transmititzen zaizkien (González eta Lomas, 2006).

Bi autore hauek jaso duten moduan, jasotako estimulu kopurua oso garrantzitsua da umeen ikasketa prozesuan; bai eta hauek positiboak edo negatiboak diren. Orokorrean eskoletan ematen den egoera plazaratzeko, euren liburuan Subiratsek eta beste autore batzuek egindako ikerketen emaitza anitz bildu dituzte.

Jarraian azalduko diren emaitzetan irakasleen diskurtsoari buruzkoak aipatzen dira eta ikasleek horri erantzuten aurkezten duten jarrerakoak baita ere.



Ikasgelan mutilak dira irakaslearen aldetik atentzio gehien jasotzen dutenak, hitz kopuru handiagoa beraientzat zuzenduta egonda. Esaldi motaren arabera, ordea, ez dira diferentziak jaso mutilen eta nesken artean; hau da, perpausak baiezkoak, ezezkoak, galderazkoak, aginduzkoak... diren ez du eraginik nori zuzenduko diren erabakitzerako orduan. Beste alde batetik, neskek jasotzen dituzten interpelazio kantitatea mutilek jasotzen dutena baino txikiagoa da ere; gainera, hauek beraientzat zuzenduta daudenean motzagoak izateko joera dute. Azkenik, aipatzekoa da jarrera eta ordena erregulatzen duten esaldi gehienak mutilei bideratuta daudela. Burutu beharreko lanak aipatzen dituzten esaldiek, ordea, neskei zuzenduta daude kasu gehienetan. Honek aditzera ematen du ikasgela barruan neskek jasotzen duten atentzioa lanari erreferentzia egiten diola gehienetan; eta mutilek jasotzen dutena eskola lanarekin erlazio gutxiago duten gauzeekin erlazionatuta dagoela, jarrera pertsonalarekin hala nola (González eta Lomas, 2006).

Aurreko emaitza horiek ondorioak dituzte bi generoko ikasleen jarreran eta parte hartzean ikasgela barruan.

## **IKUSIZKO CURRICULUM EZKUTUA**

Acaso eta Nuere 2005ean definitu zuten moduan, curriculum mota hau hezkuntza testuinguru batean ikusizko hizkuntzaren bidez barneratzen diren edukien multzoa da.

Diskurtso eredu honetan hurrengo erreminten manipulazioa erabili ohi da:

- Tamaina
- Forma
- Kolorea
- Argitasuna
- Testura
- Konposizioa
- Ikusizko erretorika

Kontuan hartu beharrekoa da irudiek bi mezu mota bidaltzen dituztela; baina, kasu honetan latentea baino ez dugu aintzat hartuko, hau baita modu ezkutuan transmititzen dena (Acaso eta Nuere, 2005).

Irakasle batek bere klaseetarako hautatzen eta erabiltzen dituen argazkiak eta irudiak ikusizko curriculum moduan funtzionatzen dute, bai diapositibak, aurkezpenetarako hautatutako irudiak, filmak, etab. Baina, garrantzitsuena eta eragin gehien duena testu liburua da; hau baita ikasleekin kontaktuan denbora gehien egoten den materiala (Acaso eta Nuere, 2005).

Ikusizko curriculum ezkutuak, esan bezala, anitz gauza transmititu ditzake; baina, oso kontuan eta presente izatekoa da lotura zuzena daukala generoaren transmisioarekin. Izan ere, umeez irudietan ikusten dituzten gauza eta ekintza guztiak barneratzen dituzte; irudietan genero ezberdinetako pertsonen egiten dituzten ekintzak ikasi egiten dituzte eta genero horri esleitzen dizkiote (Rodríguez, 1933 in Pellejero eta Torres, 2011).

Horrekin lotuta, jakin beharra dago gaur egun estereotipoak oraindik oso presente daudela gure gizartean, eta hori testu-liburuetan islatuta gelditzen dela; beraz, genero bakoitzari esleitzen dizkioten ezaugarri horiek estereotipatuak egongo dira (Gutierrez eta Ibañez, 2013).

Gaur egun testu-liburua hezkuntzak duen hormarik tradizioaletakoa da, askotan irakaslearen erosotasunagatik inposatuta dagoena. Kontuan hartu beharra dago irakasle bakoitzak lehen aipatutako ezkutuko curriculum eta balioak modu ezberdin batean transmititzen dituela bere saioretan, bai bere esperientzia pertsonalen bidez, bai erabiltzen dituen materialen bidez (Hamodi, 2014).

Eta, esan bezala, testu-liburua gehienetan erabiltzen den material didaktikoa dela aintzat hartuta, hauek aztertzea ezinbestekoa da.

Alde batetik, hezkuntza sozializazio prozesuaren parte oso garrantzitsua delako (Hamodi, 2014) eta beste alde batetik, hezkuntzaren soziologia agerian utzi duelako testu-liburuek, gehienetan, gizarteko ideia eta sinesmen menderatzaileak edo nagusiak transmititzen dituztela (Apple, 1993 in Hamodi, 2014).

Erabilera ugari horri esker, material honek generoari buruzko kontu sozialak transmititzeko erreminta moduan erabiltzeko gaitasuna du. Ondorioz, gaur egun hauen ikerketa oso hedatuta dago autore ezberdin askoren artean, non sexu bakoitzeko pertsonaien irudi kopurua, hauen protagonismo maila, betetzen dituzten lan motak, parte-hartze soziala etab. aztertzen den (Covacevich eta Quintela-Dávila, 2014).

Azterketa hau aurrera eramatera bultzatu duen beste ideia bat honakoa da: sarritan testu-liburuen irudietan genero ezberdinetako pertsonaiek ekintza eta jarrera ezberdinak erakusten dituzte, bakoitzarentzat aproposak deritzenak. Honek desberdintasun grina sor dezake, askotan emakumeentzako aproposa dena gizonentzat aproposa denaren desberdina eta apalagoa baita (Ritzer, 1993 in Covacevich eta Quintela-Dávila, 2014).

Azkenik, honekin lotuta, bi gauza dira jakin beharrekoak. Batetik, testu-liburuen edukiera (testua, irudiak...) argitaletxeek manipulatu egiten dutela beraien interes

politikoetara, ekonomikoetara etab. hurbiltzeko; eta bestetik, talde soziokultural zehatz baten ikuspegiak transmititzen dituztela, sarritan ikasleen errealitatek oso urrun aurkitzen direnak (Aguado eta al, 2005 in Hamodi, 2014).

## **2. Metodologia**

Ikerketa honen helburua generoaren ikuspegiaren aldetik Lehen Hezkuntzako matematika testu-liburuen azterketa bat da. Honekin, testu-liburuek erakusten dituzten irudietan egon daitezkeen genero desberdintasunak behatu nahi dira.

Izan ere, autore askok esaten duten moduan, material didaktikoek ikasleei transmititzen dizkieten irudiek eragin handia izan dezakete ume hauen garapenean eta munduari buruz duten ikuspegiari.

Ikerketa honen bidez aztertuko diren alorrak lau izango dira.

### **2.1. Ikerketa galderak**

- Ea emakumeak eta gizonak kopuru antzekoetan agertzen diren irudietan.
- Ea emakumeek eta gizonak irudietan betetzen dituzten lanak antzekoak diren, edo estereotipatuak agertzen diren.
- Ea janzkera eta itxura fisikoaren aldetik estereotipoak ikusten diren.
- Argialetxe ezberdinen artean zer-nolako ezberdintasuna dagoen.

Ikerketa hau aurrera eramanez ahal izateko editorial desberdinetako matematikako testu liburuen azterketa bat burutu izan da: non liburuetan aurkitutako irudiei buruzko analisia egin den.

### **2.2. Ikerketaren lagina**

Azterketa aurrera eramateko hautatutako lagina bi editorial ezberdinetako matematika testu liburua izan dira; bakoitza ziklo ezberdin batekoa izanda. Horietako bat laugarren mailakoa eta Anaya-Haritz argitaletzekoa (2014) izanik; eta bestea, lehenengo mailakoa eta Pixel-Giltza (2011) argitaletzekoa izanik.

Bi editorial eta bi maila ezberdineko liburua aztertzearen erabakiaren arrazoia ahalik eta konparaketa objektibo bat jasotzea izan da. Modu horretan editorial ezberdinek

generoa tratatzeko duten modua analizatuko dut eta aldi berean, ziklo eta adin ezberdinetako umeei zer nolako irudi jasotzen dituzten ikertu ahal izango dut.

Matematikako testu liburuak eta ez beste ikasgaikoak aukeratu izanaren arrazoia hezkuntza matematikoa kulturaren hezten eta matematikak alderdi sozial batetik erakusten dituen irakasgai moduan ulertu behar direla izan da. Hau da, matematika ez dela sinbolo eta zenbaki multzo soil bat; baizik eta generoa bezalako beste hainbat gai era hurbil batean eta egunerokotasunarekin irakasteko baliagarria suerta daitekeela.

Azkenik, azpimarratu beharra dago testu-liburuak klasean erabilitako material didaktiko bakarra izan ez arren, autore askok bat egiten dute gaur egun oraindik globalizatuen dagoen materiala dela eta bai ikasleek, bai irakasleek jasotzen dutela hauen eragina. Hori dela eta, material didaktiko hau aztertzea erabaki da eta ez erabili daitezkeen beste batzuk.

Horrez gain, barne hartzen duen irudi kopuru handia aintzat hartuta, erreminta ezin hobea da azterketa hau generoaren ikuspuntutik aurrera eramateko.

### 2.3. Ebaluaketa tresna

Planteatutako lehenengo ikerketa galderari erantzuna emateko, ea emakumeak eta gizonezkoak antzeko kopuruetan agertzen diren testu-liburuetakoa irudietan, editorial bakoitzeko liburuetan agertzen diren irudi guztiak aztertu eta zenbatu izan dira. Pertsonaiak ez zituzten irudiak baztertu egin dira, eta gainontzekoekin sailkapen bat egin da: zenbat irudietan agertzen den emakume bat, zenbatetan agertzen den gizon bat, zenbatetan agertzen diren emakumeak eta gizonak batera, eta zenbatetan agertzen diren kolektiboak, bai kolektibo femeninoak, zein maskulinoak.

Kopuru bakoitzaren ehunekoak atera izan dira eta hauek grafiko batean islatu egin dira, konparaketa bat egiteko helburuarekin.

Gure bigarren galderari erantzuteko, pertsonaiak burutzen ari diren ekintzaren arabera sailkatu egin dira. Sailkapen hau egiteko, lau izan dira aintzat hartu izan diren eremuak: ludiko/kulturala, etxeko eremua, lan eremua edo beste eremu batzuk. Sailkapen taula hau egiteko *“El sexismo en los libros de texto: análisis y propuesta de un sistema de indicadores”* obran oinarritu naiz (Subirats, 1993 in Hamodi, 2014).

Sailkapen hori egindakoan, lan eremuan sartutako irudietan zentratu izan naiz eta bertan pertsonaiek zer-nolako lanak betetzen zituzten aztertu izan dut, bai gizonek, bai

emakumeek. Helburua lan motak alderatzea eta estereotipatuak diren edo ez ondorioztatzea izan da.

Ikerketaren hirugarren galdera janzkeran eta itxura fisikoan estereotipoak agertzen diren izan da. Hau erantzun ahal izateko, berriro ere pertsonaiak dituzten argazki guztiak aztertu izan dira eta hauetan bi generoetako pertsonaiek duten itxura eta daramaten arropa behatu izan da. Behaketa honetan arropa mota eta honen kolorea hartu izan da kontuan. Itxurari dagokionez, ilea nolakoa den aztertu izan da; bai eta bi generoetako pertsonaiak aldi berean agertzen direnean bien arteko tamainaren erlazioa; hots, ea bietako batek bestea baino handiago agertzen den irudian.

Azkenik, lan honen azken ikerketa galderaren emaitzak lortzeko bi editorialetatik ateratako emaitza guztiak konparatu izan dira. Modu horretan, aurreko hiru galderen erantzunak alderatu eta editorial ezberdinen artean antzekotasunak edo desberdintasunak aurkitzen diren ondorioztatuko da.

### 3. Emaitzak

Aurretik aipatu bezala, azterketa honen analisia bi testu liburuekin egin da eta hauen ilustrazioak izan dira azterketa horren ardatza. Aipatu beharra dago bi testu liburu hauek hiruhilabeteka antolatuta dauden liburuxketan sailkatuta daudela; hau da, editorial bakoitzeko hiru liburuxka aztertu izan dira.

Beraz, analisi ikoniko bat izan da aurrera eramandako prozedura.

Jarraian, azterketari buruzko datuak (liburuen maila, editoriala eta irudi kopurua) jasotzen dituen taula aurkezten da.

*Taula 1 Aztertutako testu-liburuei buruzko datuak*

<b>MATEMATIKA TESTU LIBURUAK</b>	1.maila	Pixel-Giltza (2011)	Aztertutako irudi kopurua: 263
	4.maila	Anaya-Haritza (2014)	Aztertutako irudi kopurua: 300

Aurrera eramandako ikerketaren bidez lortutako emaitzak plazaratuko dira atal honetan. Emaitzak ikerketan proposatutako galderak jarraituz antolatuta agertuko dira; hau da, galdera bakoitzari banan-banan erantzuten joango naiz, lehendabizi aztertutako lehenengo editorialean behatutakoa azalduz, eta ondoren bigarren editorialean aurkitutakoa.

### **3.1. Gizonen eta emakumeen presentzia irudietan**

#### **3.1.1. ANAYA-HARITZA EDITORIALAREN TESTU LIBURUAREN ANALISIAREN EMAITZAK**


Irudiak aztertu ostean, hauek genero femeninoari, maskulinoari edo biei aldi berean erreferentzia egiten dioten aintzat harturik sailkatuak izan dira.

Lortutako datuak hurrengoan izan dira:

Aztertutako irudi guztietatik, 300, 30 dira protagonista bezala figura femenino bat dutenak; 63 figura maskulinoa dutenak protagonistatzat, eta 60 bi generoak dituztenak protagonista moduan (hauetako irudi batzuk eranskinetan aurki daitezke). Gainontzeko irudiek, 147, ez dituzte ez genero bateko, ez besteko pertsonak erakusten; objektuak edota animaliak agertu egiten dira.

Pertsonaia femeninoa protagonista bezala duten hogeita hamar irudietatik, hogeitasei aldiz agertzen da emakume bakar bat marrazkian eta lau aldiz emakume talde bat; hots, kolektibo femeninoa agertzen da protagonista moduan.

Pertsonaia maskulinoa erakusten duten hirurogeita hiru irudietatik, pertsona bakarra dutenak berrogeita hamaika dira eta hamabi kolektibo maskulino bat irudikatzen dutenak.



Grafikoa 1 Anaya-Haritz: pertsonaiak dituzten irudiak

Aurreko grafikoan aztertutako irudietan aurkitu daitekeen genero ezberdinen, maskulinoa eta femeninoa, protagonismoa adierazita dago. Horrez gain, bi generoak aldi berean biltzen dituzten eta kolektiboak (maskulinoa zein femeninoa) erakusten dituzten irudien kopurua ere agertzen da. Modu horretan, ikus daiteke genero maskulinoko pertsonaia protagonista bezala duten irudiak genero femeninoko pertsonaia dutenak baino gehiago direla, hauek bikoiztera helduz. Beste alde batetik, behatu daiteke bi generoko pertsonaiak dituzten irudien kopurua nahiko handia dela ere, pertsonaia maskulinoa bakarrik dituztenak ia berdinduz.

Azkenik, kolektiboak erakusten dituzten irudiei erreparatu, ikus daiteke oso gutxi direla beste guztiarekin alderatuz gero. Eta horien artean ere kolektibo maskulinoa irudikatzen dituztenak dira nagusitzen direnak.

Beraz, orokorrean pertsonaia maskulinoa da presentzia gehien hartzen duena testu-liburu honetan.

### 3.1.2. PIXEL-GILTZA EDITORIALAREN TESTU LIBURUAREN ANALISIAREN EMAITZAK

Pixel-Giltza editorialaren testu liburuaren irudiak aztertu ondoren, hauek erakusten duten generoaren arabera sailkatuak izan dira; aintzat hartuz genero femeninoa, maskulinoa edo biak aldi berean agertzen diren.


Hurrengoak izan dira bildutako datuak:

Aztertu izan diren irudietatik, 263; 47 dira genero maskulinoko figurak errepresentatzen dituztenak, 16 genero femeninoko pertsonaiak dituztenak eta 79 bi generoak erakusten

dituztenak (eranskinetan aurki daitezke hauetako irudi batzuk). Gainontzeko 121 irudiek ez dituzte pertsonaiak irudikatzen.

Protagonista maskulinoa duten berrogeita zazpi irudietatik, hogeita hamar aldiz agertzen da gizonezko bakar bat eta gainontzeko hamazazpi irudietan kolektibo maskulino bat; hots, mutil talde bat da agertzen dena.

Beste alde batetik, pertsonaia femeninoa protagonista moduan irudikatzen duten hamasei irudietan beti agertzen da emakume bakar bat. Beraz, editorial honen kasuan ez dira kolektibo femeninoak dituzten irudirik topatu.



Grafikoa 2 Pixel-Giltza: pertsonaiak dituzten irudiak

Grafikoan ikus daitekeen moduan, aztertutako irudiek erakusten dituzten pertsonaien generoak alderatu ditugu; soilik maskulinoa, soilik femeninoa, biak aldi berean edo kolektiboak erakusten dituzten aintzat harturik. Agerian geratu da genero maskulinoko pertsonaia protagonista bezala duen irudi kopurua genero femeninoko pertsonaia duena baino askoz handiago dela; ia bi aldiz handiagoa hain zuzen ere.

Kolektiboak errepresentatzen dituzten irudiek, kasu honetan, genero maskulinoa baino ez duten erakusten; eta hauek pertsonaia femeninoa protagonista bezala duten irudiak baino pixka bat gehiago dira. Hori dela eta, orokorrean, presentzia maskulinoa duten marrazkiek presentzia femeninoa dutenak hirukoiztu egiten dute.

Hala ere, editorial honen kasuan, gehien agertzen den egoera bi generoak aldi berean errepresentatzen dituen da, genero maskulinoko irudiak (gizon bakarra zein talde bat dutenak batera) ia bikoiztuz.



### 3.2. Gizonek eta emakumeek burutzen dituzten lan motak

#### 3.2.1. ANAYA-HARITZA EDITORIALAREN TESTU LIBURUAREN ANALISIAREN EMAITZAK

Pertsonaiak dituzten 153 irudi hauekin beste sailkapen mota bat burutu da, aurrera eramanez izan den azterketa ahalik eta zehatzen eta baliagarrien suerta dadin. Hori dela eta, Hamodi-k (2014) egindako sailkapenean oinarrituta, pertsonaiak eremu ludiko/kultural, etxeko eremuan edo lan eremuan agertzen diren aztertu izan da; geroago lan eremuko irudiak sakonago aztertuz.

Sailkapen honetan ez da aintzat hartu pertsonaia maskulinoak edo femeninoak bakarrik edo taldean agertzen diren irudietan, genero bakoitzeko pertsonaiak erakusten dituzten irudiak batu izan dira multzo bakar batean. Modu horretan, hiru multzo erabili dira azterketa honetan: pertsonaia maskulinoa duten irudiak, pertsonaia femeninoa dutenak eta kolektibo mixtoa; hots, bi generoetako pertsonaiak aldi berean erakusten dituztenak. Aipatu beharra dago etxean lan egiten agertzen diren pertsonaiak dituzten irudiak etxeko eremuko irudietan sartu izan direla, etxean lan egitea lan bat izan arren.

Hurrengo taulan, Hamodi-ren azterketan oinarrituta dagoena baita ere, ikus daiteke sailkapen honen emaitzak:

Taula 2 Anaya-Haritza: pertsonaien eremuak

	<b>Pertsonaia maskulinoa</b>	<b>Pertsonaia femeninoa</b>	<b>Kolektibo mixtoa</b>
<b>Eremu ludiko/kulturala</b>	19	7	21
<b>Etxeko eremua</b>	4	8	3
<b>Lan eremua</b>	20	4	3
<b>Beste batzuk</b>	20	11	33
<b>Aztertutako irudi kopurua guztira</b>	63 (%41'18)	30 (%19'6)	60 (%39'22)
	153 (%100)		

Aztertutako irudietan gehien agertzen diren eremuak, taulan ikus daitekeen bezala, ludiko/kulturala, etxeko eremua, lan eremua eta beste batzuk (non pertsonaiak kalean edota atzealde zuri baten gainean agertzen diren) dira.

Eremu ludiko/kulturalean, zein beste batzuetan agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulinoen portzentaia nahiko berdina da. Kalkuluak egiterako orduan, kontuan izan dira genero bakoitzetik dauden irudi totalen kopurua.

Hala ere, nahiz eta irudien ehunekoak antzekoak izan, aipatu beharra dago eremu ludiko/kulturalean desberdintasun oso nabaria antzeman egin dela bi generoetako pertsonaiek burutzen dituzten ekintzetan. Gehienetan mutilezkoak kirola egiten (futboleant, txirrindularitzan...) agertzen dira; emakumeak, aldiz, soka saltoan, erosketak egiten... agertu egiten dira (azken hauek batzuetan kirola egiten ere irudikatuta daude).

Beste bi eremuak aztertzerako orduan, desberdintasun nabari batekin topo egin dugu. Etxeko eremua irudikatzen duten marrazkietatik %6'3 baino ez dira gizonezkoenak, emakumezkoenak diren %26'7 baten aurrean. Etxeko eremuan sartu izan diren argazkiak pertsonaia etxe barruan irudikatzen zituztenak eta hauek etxeko tresnekin edo etxerako lanak egiten irudikatzen zituztenak izan dira.

Lan eremuan bi generoen arteko aldea txikiagoa izan arren, aipatzekoa da ere lan egiten agertzen diren gizonen kopurua %31'7 den bitartean, jarduera hori egiten ari diren emakumeena %13'3 baino ez dela.

Beraz, oso mugakoak eta adierazgarriak diren bi eremu hauetan da bi generoen arteko desberdintasun handien aurkitzen den tokia.

Azkenik, hasieran aipatu bezala lan eremuko irudiak aztertu izan dira; genero bakoitzari esleitzen zaizkion lanbideak zeintzuk diren argitzeko asmoz.

Genero maskulinoa irudikatzen duten lan eremuko marrazkiek gizonezkoaren figura indar fisiko handia eskatzen duten lanak edo adimenarekin erlazionatutako lanak egiten erakusten dute; hala nola, medikuaren lana egiten, mekanikaria, abeltzaina, gasolindegiko langilea, kamioi gidaria, etab. Orokorrean, gure gizartean mutilekin erlazionatzen diren lanbideak izan ohi dira horiek.

Lan egiten agertzen diren emakumeak, berriz, indar gutxiago eskatzen duten lanbideetan agertzen dira, eta gehienetan beste pertsona batzuk laguntzera bideratutako lanetan; hots, irakasle lana egiten edo sukaldariak izaten.

### 3.2.2. PIXEL-GILTZA EDITORIALAREN TESTU LIBURUAREN ANALISIAREN EMAITZAK

Editorial honekin, aurrekoan bezala, pertsonaiak protagonista moduan dituzten irudiekin, 142 kasu honetan, beste sailkapen bat eraman izan da aurrera. Honetan ere, gure azterketaren emaitzak zenbat eta zehatzagoak eta aberasgarriagoak izateko asmoarekin, pertsonaiak sailkatu izan dira egiten ari diren jardueraren arabera: eremu ludiko/kulturala, etxeko eremua, lan eremua edo beste batzuk; non pertsonaiak gainazal zuri baten gainean agertzen diren edo aurreko eremuetako ekintzak egin barik (Hamodi, 2014).

Jarraian aurkitzen den taulan, Hamodi-ren taula oinarri hartuz egin dena, aurki daiteke sailkapen honen emaitzak:

Taula 3 Pixel-Giltza: pertsonaien eremuak

	<b>Pertsonaia maskulinoa</b>	<b>Pertsonaia femeninoa</b>	<b>Kolektibo mixtoa</b>
<b>Eremu ludiko/kulturala</b>	12	3	29
<b>Etxeko eremua</b>	3	1	7
<b>Lan eremua</b>	24	9	8
<b>Beste batzuk</b>	8	3	35
<b>Aztertutako irudi kopurua guztira</b>	47 (%33'1)	16 (%11'27)	79 (%55'63)
	142 (%100)		

Aztertutako irudietan gehien agertzen diren eremuak, taulan ikus daitezkeenak dira: ludiko/kulturala, etxeko eremua, lan eremua eta beste batzuk.

Pixel-Giltza editorialaren kasuan, begi-bistaz ezberdintasun handia aurkitzen dela eremu guztietan ematen du, pertsonaia femeninoa edo maskulinoa den aintzat hartuta. Hau gertatzearen arrazoi nagusia bi generoek duten argazki kopuru totalaren arteko diferentzia oso handia dela da. Hala ere, taulako emaitzak hobeto ulertu ahal izateko ehunekoak erabili izan dira.

Eremu ludiko/kulturalean da bi generoen arteko desberdintasun gehien topatzen den eremua; genero maskulinoko irudiak askoz gehiago izanda. Eremu honetan agertzen diren irudi motak (eranskinetan ikus daitekeen moduan), umeak futboleko jolasten erakusten dituztenak, bisita kulturalak egiten dituzten pertsonaiak dituztenak, oportretan doazen pertsonaiak dituztenak, etab. dira.

Bi generoek burutzen dituzten ekintzen artean ez da inolako bereizketarik egin editorial honen kasuan; biak agertzen dira kirola egiten, bisita kulturalak egiten...

Beraz, nahiz eta kopuruan alde nahiko handia agertu, ekintza mota berdinetan aritzen dira pertsonaia femeninoak zein maskulinoak.

Etxeko eremuari dagokionez, genero bakoitzak protagonizatzen duen irudien kopurua oso-oso berdintsua da (%6'38 irudi maskulinoek eta %6'25 femeninoek). Beraz, eremu hau ez zaie ez emakumeei, ez gizonei esleitu kasu honetan.

Lan eremuko marrazkiak aztertuz, ikus daiteke bi kopuruak ere oso antzekoak direla, emakumeak dituztenak pixka bat gehiago izanik (sexu bakoitzeko kopuru totala oinarri hartuta).

Hala ere, kopuruaren artean genero ezberdintasunak egiten ez diren arren, burutzen dituzten ekintzetan alde oso handia dago. Beraz, genero ezberdintasuna kasu honetan agertu egiten da pertsonaiek egiten dituzten jardueretan. Emakumeak gehienetan andereño edo sukaldari lana egiten agertzen diren bitartean, gizonezkoak astronauta, zientzialariak, suhiltzaile, polizia, kiroldegiko irakasle... izaten agertzen dira. Hau da, gizonak babes lanak edo indar handia eskatzen duten lanak egiten agertu ohi dira; emakumeak, aldiz, beste batzuei zerbitzuak eskainiz agertzen dira.

Gainera, aipatu beharra dago pertsonaia maskulinoen artean lan eskaintza askoz zabalagoa aurkitzen dela testu-liburu hauetan. Pertsonaia femeninoak ia beti jarduera berbera egiten azaltzen dira.

Azkenik, beste eremu batzuetako marrazkiak aztertu izan dira; hots, gainazal zuri baten gainean agertzen diren pertsonaiak edota beste jarduera mota batzuk egiten aurkitzen diren pertsonaiak. Hauetan ere bi generoetatik dauden irudien kopurua nahiko antzekoa da. Horrez gain, gainazal zuri baten gainean edota jarduera sinpleak eta garrantzirik gabekoak burutzen agertzen direnez pertsonaiak, ez da inolako bereizketarik egin bi generoen artean.

### 3.3. Pertsonaien janzkeran eta itxuran dauden estereotipoak

#### 3.3.1. ANAYA-HARITZA EDITORIALAREN TESTU LIBURUAREN ANALISIAREN EMAITZAK

Laugarren mailako testu-liburu hauetan aztertu den lehendabiziko alderdia mutilen eta nesken janzkera izan da: zer nolako arropa daramaten eta hauek zein koloretakoak diren.

Aztertu izan diren irudietan, neskek, orokorrean, genero horri esleitzen zaizkion eta oso estereotipatuak diren jantziak daramatzate. Behatu izan da agertzen diren emakume gehienek bai gonak edo femeninotzat jotzen den kolore bateko arropak ipinita dituztela; hala nola, arrosa, morea, laranja, berde argia... Horrez gain, askotan agertzen dira zapiak daramatzaten neskak, hauek bai buruan, bai lepoan ipinita egonda.

Aipatu beharra dago, lepokoak, belarritakoak, pultserak... dituzten emakumeak ez direla agertzen kasu honetan.

Gizonezkoei dagokienez, bati prakekin, kirol arroparekin edo lanbide ezberdinetako uniformearekin agertzen dira; hala nola, mediku amantala, mekanikari buzoa etab. Jantzien koloreak oso anitzak dira mutilengan; baina, inoiz ez dira arrosa edo moreak direnak agertzen. Urdin kolorea askotan agertzen da, gehienbat bi generoak aldi berean irudikatzen dituzten irudietan.

Hauek ere ez dute inolako apaingarririk eramaten.

Goiko parteko arropak bi generoetan dira berdinak (kamisetak, izerditzeko-jertseak, jakak...); nahiz eta, aurreran aipatu bezala, koloreak ezberdinak eta nahiko estereotipatuak izan.

Editorial honetako liburuetan pertsonaien itxura fisikoa behatu izan da ere. Aurrean aipatu bezala, bi izan dira kontuan harturiko puntuak: ilearen luzera eta orrazkera eta bi generoak batera agertzen direnean, pertsonaien tamaina.

Emakumeei dagokienez, guztiek daukate ile luzea; hau luzera desberdinetakoa da, baina, beti mutilen ilea baino luzeagoa, neskak direla ondo nabaritzuz. Batzuk, gainera, kopeta-ilea dute. Orrazkerak ere oso antzekoak eta estereotipatuak dira beti: ile soltearekin (lisoa nahiz kizkurra) edo mototsarekin.

Mutilen kasuan, ordea, ile motzarekin agertzen dira beti eta orrazkera berezirik gabe. Gizon nagusiek ilea orraztuta daramate kasu guztietan; umeak, berriz, ilea orraztuta eta orraztu gabe (nahasita) agertzen dira irudietan.

Azkenik, pertsonaien tamainari buruz behatutakoa hurrengoia izan da: zenbait irudietan emakumeak tamaina txikiago batean agertzen dira, baxuagoak direla irudikatuz; baina, beste hainbatetan, mutilak dira tamaina txikiago batean irudikatuta daudenak. Beraz, editorial honetan ez da inolako bereizketarik ageri bi generoen artean pertsonaien tamainari dagokionez.

### 3.3.2. PIXEL-GILTZA EDITORIALAREN TESTU LIBURUAREN ANALISIAREN EMAITZAK

Bigarren editorial honetan, aurrekoan bezala, pertsonaien arropak, itxura fisikoak eta tamainak behatu izan dira bi generoen artean desberdintasunik dagoen hautemateko helburuarekin.

Emakumeek daramaten arropari erreparatuz, ikus daiteke arrosa kolorea sarritan agertu egiten dela; nahiz eta, askotan ere urdin, berde, laranja, more... koloreak aurkitu. Kasu gehienetan prakak daramatzate jarrita; oso gutxitan behatu izan dira gonak edo soinekoak dituzten neskak. Editorial honetako irudietan ez dira apaingarririk daramaten pertsonaiarik agertzen ezta ere, eta oso-oso gutxitan neskek ileko zapiak dituzte.

Gizonak prakak eta alkandorak edo kamisetak jantzita agertzen dira, hauek edozein koloretakoak izanda.

Ile forma eta orrazkerari dagokionez, liburu hauetan, orokorrean, ez dira orrazkera estereotipatuak agertzen. Mutilek eta neskek antzeko luzerako ileak dituzte eta hauen formak ere nahiko antzekoak dira; batzuetan zaila izan da marrazkiko pertsonaia neska edo mutila den zehaztea.

Azkenik, gizon eta emakumeen tamainak behatu izan dira. Editorial honen kasuan ere ez dira bereizketarik egin; batzuetan gizonezkoak dira altuera edo tamaina handiago bat erakusten dutenak, eta beste batzuetan emakumezkoak.

### 3.4. Anaya-Haritz eta Pixel-Giltza editorialen arteko konparaketa

Bi editorialetatik lortutako emaitzak alderatuz, ikus daiteke bietan pertsonaia maskulinoen kopurua pertsonaia femeninoarena baino handiagoa dela. Anaya-Haritz editorialan, kopuru hau bi sexuko pertsonaiak aldi berean ateratzen den kopurua baino handiago da ere. Bigarren editorialean, ordea, ez da horrela gertatzen; izan ere, biak aldi berean agertzea da nagusitzen den egoera. Beraz, nahiz eta bi kasuetan genero maskulinoa femeninoaren gainetik agertzen den, Pixel-Giltza editoriala azken genero honen presentzia indartu egiten du biak aldi berean erakutsiz.

Lan eremuaren irudiekin ateratako emaitzak aztertuz, ikus daiteke lehenengo editorialean ekintza hau egiten duten gizonen kopurua nahiko altua dela, emakumeen kopuruarekin konparatuz gero. Bigarren editorialean, aldiz, emakume langileen kopurua izan da nagusitu egin dena; nahiz eta oso ehuneko txikian izan (%56'25 emakumeak eta %51'06 gizonak).

Bi testu-liburuetatik hartutako datu horiek, kasu honetan ere, Pixel-Giltza editorialak genero femeninoaren presentzia sustatzen duela esaten digute, Anaya-Haritz editorialaren aurrean.

Burutzen dituzten lan motetan ez da argitaletxeen artean desberdintasunik topatu; bietan gizonetzkoen lan eskaintza zabalagoa da eta indar (fisiko zein psikologiko) handiagoa eskatzen duten jardueretan agertzen dira; hala nola, mekanikariak, medikuak, suhiltzaileak, polizia etab. Emakumeek, berriz, oso eremu murriztua dute eta gehienetan sukaldari edo irakasle lana egiten agertzen dira.

Azkenik, gure hirugarren ikerketa galderaren emaitzak alderatuz, ikus daiteke nola Pixel-Giltza argitaletxea estereotipo gutxiago erakusten dituen. Hau ondorioztatu ahal izateko, Anaya-Haritz editorialak erabiltzen dituen janzkera eta pertsonaien itxuran oinarritu gara. Editorial honetako irudietan, aurreko emaitzetan aipatu den moduan, neskek jantzi estereotipatuak (gonak, zapiak...) daramatzate eta nagusitzen diren koloreak arrosa eta morea dira. Itxura fisikoari dagokionez, neska guztiek ile luzea eta orraztuta daukate.

Aztertutako bigarren editorialaren kasuan, arropa estereotipatuak agertzen dira ere. Alde horretatik ez dago diferentzia handirik. Baina, itxura fisikoan ez dira bereizketarik egin bi generoen artean, ile eta orrazkera berdintsuak daramatzate gizonak eta emakumeek.

Beraz, azken alderdi honetan ere, Pixel-Giltza editoriala da bi generoen arteko desberdintasun gutxien erakusten duena.

#### 4. Ondorioak

Ikerketa hau generoaren ikuspegiaren oinarritik Lehen Hezkuntzako matematika testu-liburuen azterketa bezala planteatu izan da. Burutu diren behaketen bidez emaitza kuantitatibo batzuk lortu izan dira, ondoren konparaketa bat egiteko erabili izan direnak. Emaitza horiek, gehienetan, anitz autorek aurretik egindako ikerketetan lortutako emaitzekin bat datoz. Edozein modutan ere, ikerketa honetatik hausnartutako ondorioak jarraian aurkezten direnak dira.

Gaur egun erabiltzen diren anitz testu-liburuetan genero desberdintasunaren aztarnak aurkitzen dira oraindik. Kontuan izanda hezkuntza bateratua lortzeko bidean aurkitzen garela, aldaketa ugari egin behar direla eskola barruan erabiltzen material didaktikoetan ondoriozta daiteke. Izan ere, aztertutako testu-liburu bietan nagusitzen da genero maskulinoaren protagonismoa femeninoaren gainetik. Beraz, hezkuntza bateratua ez dugu lortu eta Subitats-ek (2009) esan bezala, eskola mixtoarekin nahasi izan da; hots, neskak eta mutilak batera hezi egiten dira, baina, ez zaie bi generoen arteko berdintasuna erakusten.

Aztertutako bi argitaletxeek aurrean aipatutako ezaugarria duten arren, aipatu beharra dago Pixel-Giltza argitaletxea berdintasun egoera batetik hurbilago kokatzen dela. Emaitzetan ikus daitekeen moduan, Anaya-Haritza editorialarekin alderatuz gero, lehenengo horrek (Pixel-Giltza) bi sexuetakoa pertsonaiak aldi berean erakusten dituen aldien kopurua handiagoa da, eta itxura fisikoan suerta daitezkeen estereotipoak baztertu izan ditu; eta horrek berdintasunari atea irekitzen lagundu egiten dio.

Anaya-Haritza editorialak estereotipo gehiegi aurkezten ditu, bai pertsonaien janzkeran (emakumeak gonarekin, arrosa eta more kolorearekin eta gizonak kolore urdinarekin nagusiki), bai itxura fisikoan (emakumeak ile luzea eta orraztua). Estereotipo hauek ikasleek jaso egiten dituzte eta txiki-txikitatik barneratzen dituzte. Horrek euren ikuspegiaren eragin handia izan dezake; alde batetik, gerta daiteke liburuetan agertzen diren itxurak eta ekintzak genero bakoitzari esleitzea eta egoera hori onartzea,



normaltzat hartuz. Edo beste alde batetik, suerta daiteke beraiengan hausnarketa berri bat zabaltzea, egoera hori zalantzan jarriz eta aldaketa nahia piztuz.

Azken hori da ikerketa mota hauekin lortu nahi dudana; belaunaldi berriek errealitate hau ezagutzea eta honi buruz hausnartzea emakumeentzako berdintasun egoera bat bilatu nahian. Modu horretan soilik lortuko baita benetako hezkuntza bateratua eta berdintasuna oinarri duen gizarte bat.

“Donde las mujeres y los hombres gozan de igualdad de derechos, las sociedades prosperan. La igualdad para las mujeres es progreso para todas y todos”.

— Ban Ki-Moon

Secretario general de las Naciones Unidas

Hala ere, ikerketa hau oso mugatua izan da, bi argitaletxe eta bi testu-liburu baino ez baitira aztertu, eta hori dela eta, ezin dezakegu ondorioztatu genero desberdintasun egoera hau beti ematen dela.

Honekin atea irekita uzten da etorkizunean ikerketa gehiago egiteko beharrari, bai editorial eta testu-liburu kopuru handiago bat aztertuz, bai irakasgai ezberdinetako material didaktikoa ikertuz.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

Acaso, M. eta Nuere, S. (2005). El curriculum oculto visual: aprender a obedecer a través de la imagen. *Arte, individuo y sociedad*, 17, 205-218.

Comisión Internacional sobre la Educación para el siglo XXI. (1996). *La educación encierra un tesoro*. 2015eko abenduaren 1ean [http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS\\_S.PDF](http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS_S.PDF) orrialdetik berreskuratuta.


Covacevich, C. eta Quintela-Dávila, G. (2014). Desigualdad de género, el currículo oculto en textos escolares chilenos. *BID: Banco Interamericano del Desarrollo*.


González, A. eta Lomas, C. (Koords.) (2006). *Mujer y educación. Educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. Barcelona: Grao.

- Gutiérrez, P. eta Ibáñez, P. (2013). ¿Cómo se transmiten los estereotipos culturales y sexistas a través de las imágenes de las tic en los libros de texto? *Enseñanza & Teaching*, 31, 109-125.
- Hamodi, C. (2014). ¿Transmiten los libros de texto el valor de la igualdad desde la perspectiva de género? estudio del lenguaje icónico de dos editoriales. *REIRE: Revista d'Innovació i Recerca en Educació*, 7 (1), 30-55. 2016ko otsailaren 3an <http://www.ub.edu/ice/reire.htm> orrialdetik berreskuratuta.
- Ibarretxe, J.J. (2007). *175/2007 Dekretua*. Vitoria: Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila.
- Jefatura del Estado (1990). Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo. 2015eko abenduaren 6an <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1990-24172> orrialdetik berreskuratuta.
- Jefatura del Estado (2013). Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa.
- Moreno, M. (2000). *Como se enseña a ser niña: El sexismo en la escuela*. Barcelona: Icaria.
- Pellejero, L. eta Torres, B. (2011). La educación de la sexualidad: el sexo y el género en los libros de texto de Educación Primaria. *Revista de Educación*, 354, 399-427.
- Sánchez, A. (2002). El androcentrismo científico: el obstáculo para la igualdad de género en la escuela actual. *Educación*, 29, 91-102.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, 6, 49-78.
- Subirats, M. (2009). La escuela mixta ¿garantía de coeducación? *CEE Participación Educativa*, 11, 94-97.

# ERANSKINAK

## ANAYA-HARITZA EDITORIALAREN TESTU-LIBURUAREN IRUDIAK





PIXEL-GILTZA EDITORIALAREN TESTU-LIBURUAREN IRUDIAK



